

IRUNGO SAN MARTZIAL ALARDEAREN ORDENANTZA



2016ko azaroaren 22an onartua

Ordenantza hau berrikusteko proiektua aurrera ateratzea urte batzuetako lana izan da. Helburu horrekin sortutako batzorde batek, Buruzagien Juntak, Alardeko Juntak eta konpainietako batzordeek eta partaidetza mugatuko unitateek parte hartu dute. Lan horren emaitza Ordenantza hau da, 2001ekoa eguneratzen duena eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen dena.

Eskerrik asko lan honetan lagundu duten pertsona guztiei, eta eskerrik asko era batera edo bestera gure Alardea egiten duten pertsona guztiei ere.

AURKIBIDEA

1. artikulua	5
2. artikulua	5
3. artikulua	5
4. artikulua	5
5. artikulua	5
6. artikulua	6
7. artikulua	6
8. artikulua	6
9. artikulua	6
10. artikulua	7
11. artikulua	7
12. artikulua	7
13. artikulua	8
14. artikulua	8
15. artikulua	9
16. artikulua	9
17. artikulua	9
18. artikulua	9
19. artikulua	9
20. artikulua	10
21. artikulua	10
22. artikulua	10
23. artikulua	10
24. artikulua	11
25. artikulua	11
26. artikulua	11
27. artikulua	12
28. artikulua	13
29. artikulua	13
30. artikulua	14
31. artikulua	16

32. artikulua	17
33. artikulua	17
34. artikulua	19
35. artikulua	19
36. artikulua	20
38. artikulua	21
39. artikulua	22
40. artikulua	22
41. artikulua	23
42. artikulua	24
43. artikulua	24
44. artikulua	24
45. artikulua	25
46. artikulua	25
47. artikulua	26
48. artikulua	27
Azken xedapenak	29
Xedapen gehigarriak	30
ERANSKINA - San Martzial Alardearen musiken partiturak.....	31



1. artikulua

- San Martzial Alardea foru milizietako jendearen arma erakustaldi eta ikuskatzearen oroitzapena da.
- 1804 urteaz geroztik Alarde hau eta Irungo elizako kabildoak nahiz kabildo sekularrak emandako botoa batu egin ziren urtero ekainaren 30ean ospatu zedin.
- Alardea osatuko dute partaidetza mugatuko konpainia eta unitate desberdinetan adskribitutako gizonezkoek (hemendik aurrera, unitateak), beren kantinekin.

2. artikulua

- San Martzial Alardean parte hartzea ulertzen da, soilik, daukan izaera herrikoia-gatik eta tradizioari eta askatasunari zor zaion errespetu hertsian oinarrituta nork bere egiten du. Gure arbasoen botoa betetzera eta foru miliziak oroitzera bideratuta dago, beraz, ezingo da lortutako meritutzat argudiatu ospatzen den oroigarritzko ekintzarekin zerikusirik duen buruzagitza edukitzea, jokabide eredugarria edo beste gorabehera pertsonal berezirik.
- Premisa horrekin kontsekuente izanik, ez Alardeko Juntak eta ez Buruzagi Juntak ez dute omenaldirik antolatuko ezta inolako saririk emango ere antzeko arrazoirengatik.

Alardearen eraketa

3. artikulua

- Alardean parte hartzeko gutxieneko adina 18 urte izango da.

4. artikulua

- Alardea ondokoek osatzen dute: infanteriako konpainiak, atzetik artilleriako bateria eta haien guztien aurretik Hatxeroen Eskuadra, Danborrada (txilibitu eta danborren banda), Musika Banda eta Zaldizkoen Eskolta.
- Elizako kabildoa eta kabildo sekularra, tradizioagatik eta Buruzagien Juntak aurrez gonbidatuta, Alardearen buruan joango dira eta bere indarrek ordenantzazko ohorea egingo diete, haiek bertan izaten badira.

5. artikulua

- Alardearen buruzagia Jeneral bat izango da, lau laguntzailerekin, alegia, infanteria, artilleria, zaldizko eta Estatu Nagusiko bana, eta Infanteriako komandante bat ere



alboan izango du, Jenerala falta denean, batailoi osoaren komandante funtzioak beteko dituena.

6. artikulua

- Alardearen formazio-ordena hau izango da: Hatxeroen eskudra, Danborrada (txilibitu eta danborren banda), musika banda, Jenerala turutariarekin, bere laguntzaileak, Zaldizkoen Eskolta, infanteriako komandantea eta infanteriako konpainiak hurrenkera honekin: Behobia, Katea, Meaka, Bidasoa, San Migel, Olaberria, Ama Xantalen, Anaka, Buenos Amigos, Uranzu, Santiago, Lapitze, Real Union, Azken Portu, Belaskoenea eta, ondoren, artilleriako bateria.

Buruzagiak

7. artikulua

- Alardeko buruzagiak dira: Jenerala, infanteriako Komandantea, Jeneralaren lau laguntzaileak, kapitainak eta unitateko buruzagiak.
- Buruzagi kargu guztiak indarrean egongo dira hurrengo izendapenak egiten diren arte, ordezkapena edo errenuntzia denean izan ezik.

Jenerala

8. artikulua

- Jenerala da agintaritza gorena Alardeari dagokionez.

9. artikulua

- Buruzagien Juntak izendatuko du Jeneral kargua beteko duen pertsona.
- Jeneral izateko ezinbesteko baldintza, Irunen jaio eta bertan bizitzea izango da edo, kasu berezietan, Irunen jaioa ez izan arren, 25 urtez etengabe bertan bizi izatea, buruzagitzarako dohainak edukitzea eta Alardean gutxienez hamar urtez aktiboki parte hartu izana, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- Jeneralaren izendapena lau urterako izango da eta epealdi bererako beste behin aukeratua izan daiteke..
- Kargua onartuta, beharrezko irizten dituen erabakiak hartuko ditu Jeneralak eta agindu egokiak emango ditu Alardeko indarrak behar bezala hezita eta diziplinatuta aurkez daitezzen dagokion egunean.



Infanteriako komandantea

10. artikulua

- Infanteriako komandantea da infanteriako berezko buruzagia eta Jeneralak izendatuko du, aurrez infanteriako kapitainei kontsultatuta, ondoren Buruzagien Juntari eta Alardeko Juntari ere kontu emanaz, jakin dezaten.
- Jeneralaren kolaboratzaileak zuzenena izango da eta Jeneral kargurako exijitutako ezaugarri berak bete beharko ditu, beharrezkoa denean Jenerala ordezkatzeko baitu, eta infanteriako kide aktiboaren izaera eduki beharko du. Komandantearen zeregina izango da Alardeko indarrak bere orduan elkartu daitezela zaintzea, behar beste lehenagotik ikuskatuz, beren egoera eta itxura erregelamenduak dioenaren arabekoak direla ziurtatuz eta Ordenantza betetzeko garaian zorrotz jokatzuz.

Infanteriako kapitainak eta unitateko buruak

11. artikulua

- Infanteriako kapitainak eta unitate-buruak beren konpainiek eta unitateek aukeratuko dituzte eta Jeneralak berretsiko ditu.
- Izendapen horientzako kontuan hartuko dira Jeneralarentzat bete behar diren gorabehera berberak eta, gainera, gutxienez azkeneko hamar urte konpainia edo unitate berean desfilatu izana.
- Infanteriako kapitain eta unitateko buruen erantzukizuna da, Jeneralaren eta Komandantearen zuzeneko kolaboratzaileak direnez, Ordenantza hau betetzen dela zaintzea eta ordena eta beharrezko diziplina mantentzen dela zaintzea.

Laguntzaileak

12. artikulua

- Jeneralaren ahalmena izango da bere laguntzaileak izendatzea, zeinek Jenerala izendatzeko exijitutako baldintza berberak bete beharko dituzten. Laguntzaileek, Estatu Nagusikoak izan ezik, ordezkaritza betetzen duteneko armako kideak izan behar dute ahal dela.
- Horien artean, infanteriakoak beteko du Komandante kargua, edozein gorabehera dela medio, postu horretarako izendatutakoak parte hartu ezingo balu.



- Ez Jeneralak eta ez Komandanteak parte hartu ezingo balute, Estatu Nagusiko laguntzaileak beteko du Jeneralaren egitekoa eta infanteriako laguntzaileak Komandantearena.
- Laguntzaileek ematen dituzten aginduak eta instrukzioak, une oro, Jeneralak emandakoak bailiran ulertuko dira, hari dagozkion atribuzioak betez emango dituzte eta.

Aginduak emateko turutaria

- Jeneralaren ahalmena izango da aginduak emateko turutaria izendatzea.
- Turuta joko da Jeneralak agintzen duenean eta, Jenerala ez badago, Komandanteak agindutakoan.

Jeneralaren Zaldizko Eskolta

13. artikulua

- Jeneralaren ahalmena izango da Zaldizko Eskolta izendatzea, Zaldizko Eskoltaren barne erregimeneko arautegiak jasotzen dituen arauak kontuan hartuz.
- Ondorengoek osatuko dute: kapitain bat, teniente bat, alferez bat, kantinera bat, sarjentu bat, hiru kabo eta hamahiru soldadu.
- Zaldizko Eskoltaren barne antolaketa antolatuko da bere Arautegiak horren inguruan jasotzen duena kontuan hartuz, aurrez Alardeko Juntak onartua eta Buruzagien Juntak berretsia izango dena.

Infanteriako konpainiak

14. artikulua

- Infanteriako konpainiak ondorengoek osatuko dituzte: kapitain bat, teniente bat, bi alferez, bi sarjentu, gutxienez hiru kabo, kantinera bat, txilibitu eta danborren banda eta gutxienez 150 soldadu armatu.
- Bandako kide kopurua ehun edo konpainia osatzen duen kopuru osoaren herena izango da, bandako berak barne, eta gehienez 150 kidez osatuko da. Hori horrela izan dadin, konpainiek sistema egoki bat ezarri beharko dute bandako kideen kopuru maximoa bermatzeko.



- Gomendatzen den proportzioa izango da %55a txilibituak, %15a erredobleak eta %30a danborrak.
- Kaboetako batek bere armaren puntan konpainiaren banderatxoa eramango du.
- Tenienteak, alferezak, sarjentuak eta kaboak konpainiako kapitainek izendatuko dituzte eta Jeneralak berretsiko ditu.
- Bidasoa konpainiak gainera, salbuespen gisa, beste teniente bat izango du eta Irungo bandera eramango du.

15. artikulua

- Konpainiak itxura martzial eta duintasunagatik nabarmendu behar dira eta bere lerroetan ez da emango ospatzen den gertaera historikoari begira jarrera eta/edo agerraldi desegokirik.

16. artikulua

- Konpainiek behar bezala botako dituzte deskargak izendatutako tokietan, eta Alardean zehar tiro solteak erabat debekatuta daude; eta kapitainen eta gainontzeko buruzagien zeregin nagusia da artikulua honetan eta aurrekoan adierazten den guztia betearaztea ez ezik, orokorki, beharrezko diziplina mantentzen dela zaintzea.

17. artikulua

- Infanteriaren barne antolaketa egingo da Infanteriako Arautegiak horren inguruan adierazten duena kontuan hartuz, aurrez Alardeko Juntak onartua eta Buruzagien Juntak berretsia.

18. artikulua

- Konpainia berriak sortzeko proposamen oro Alardeko Juntaren onespenera jarriko da eta horrek dagokion erabakia hartuko du eta Buruzagien Juntak berretsi egingo du.

Hatxeroen eskudra

19. artikulua

- Hatxeroen eskudra kabo batek eta 55 hatxerok osatuko dute.



- Hatxeroen barne antolaketa egingo da Hatxeroen eskuadrako Arautegiak horren inguruan adierazten duena kontuan hartuz, aurrez Alardeko Juntak onartua eta Buruzagien Juntak berretsia.

Danborrada (txilibitu eta danborren banda)

20. artikulua

- Danborrada (txilibitu eta danborren banda) ondorengoek osatuta egongo da: danbor nagusi bat, hiru laguntzaile, kantinera bat eta bere laguntzailea eta 60 txilibitu, 25 erredoble eta 40 danbor (bandako 125 kide, hiru laguntzaileak barne). Barne antolaketa egingo da Danborradaren Arautegiak horren inguruan adierazten duena kontuan hartuz, aurrez Alardeko Juntak onartua eta Buruzagien Juntak berretsia.

Musika banda

21. artikulua

- Alardeko Musika Banda ondorengoek osatuta egongo da: zuzendari bat, bi laguntzaile, kantinera bat eta bere laguntzailea eta musikari kopuru egokiena, ahal den neurrian instrumentuen arteko erlazio bat mantenduz, gorabehera horri buruz gomendatutako arau teknikoek ezartzen duten bezala. Barne antolaketa egingo da Musika Bandaren Arautegiak horren inguruan adierazten duena kontuan hartuz, aurrez Alardeko Juntak onartua eta Buruzagien Juntak berretsia.

Artilleriako bateria

22. artikulua

- Artilleriako bateria honela osatuko da: kapitain bat, teniente bat, bi alferrez, kantinera bat, sarjentu laguntzaile bat, bi sarjentu, bi kabo, turutari bat eta 25 artillero.
- Barne antolaketa egingo da Artilleriako Arautegiak horren inguruan adierazten duena kontuan hartuz, aurrez Alardeko Juntak onartua eta Buruzagien Juntak berretsia.

Kantinerak

23. artikulua



- Kantinerak aukeratzeko prozesuak kapitainen eta unitateko buruen erantzukizuna izango dira, eta horiek, ezereen gainera, beren konpainia eta unitateetako barne erregimeneko arautegietan ezarritako arauak errespetatuko dituzte.
- Salbuespen gisa, Hatxeroen eskuadrak ez du kantinerarik eramango.
- Alardeko Juntaren ahalmena izango da konpainia eta/edo unitate desberdinetako kantinerak aldatu daitezzen edo aukeraketa berria egin dadin exijitzea kantinerek ez badituzte Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen.
- Ezinbesteko kasuan konpainiak edo unitateak kantinerarik gabe desfilatu ahal izango du.

24. artikulua

- Kantinera izateko ezinbesteko baldintza izango da ezkongabea izatea eta Alardeari maitasun eta entusiasmo handia edukitzea, Irunen jaioa izatea edo herrian gutxiene azkeneko hamabost urtetan bizitzea. Kantineraren adina gutxienez 20 urte izango da, izendatua izango den urtearen barnean beteta. Etengabe berritzen joan daitezzen, aukeratutako kantinerak behin bakarrik desfilatu ahal izango du Alardean.

Banderatxoak eta munizioak entregatzea

25. artikulua

- San Pedro egunean, goizez, Jeneralak, Komandanteak eta laguntzaileek, Alardeko Juntarekin batera, infanteriako konpainietako kapitainei banderatxoak eta munizioa entregatuko die, eta Artilleriako bateriako kapitainari munizioa.
- Gainera, dagokion soldata entregatuko zaie infanteriako konpainietako kapitainei, unitateko buruei eta aginduak emateko turutariari.

Arma-ikuskatzea

26. artikulua

- San Pedro egunean, arratsaldean, Jeneralak, honakoek lagunduta: komandanteak, laguntzaileek eta Zaldizko eskoltak, infanteriako konpainiak eta Artilleriako bateriak ikuskatuko dituzte.
- Infanteriako konpainiak bakoitza bere banderatxoarekin joango dira Ikuskatze tokira, eta banderatxoa eramateko ardura duen kaboak jasota eramango du.



- Jeneralak, kapitainak lagunduta, konpainia ikuskatuko du eta bere kideek irmo jarrera mantenduko dute. Konpainia ikuskatu ondoren, Jeneralak banderatxoa jarriko du izendatutako kaboak daraman armaren puntan.

Alardea

27. artikulua

- Alardeko indarrak Urdanibia plazan elkartuko dira Komandantearen agindutara. Kapitainei eta unitateko buruei dei egin ondoren, Buruzagien Juntak jarritako orduan batailoia desfilea hasiko da eta San Juan Harria plazara abiatuko da.
- Konpainiek eta unitateek San Juan Harria plazan sartzen bukatzen dutenean, Komandanteak laguntzaileei aginduko die Jeneralaren bila joan daitezela. Jenerala plazara abiatuko da eta han konpainien ardura hartuko du.
- Jeneralak indarrak ikuskatzen dituzenean eta kapitainei eta unitateko buruei dei egin ondoren, Irungo bandera Alardean sartu dadila aginduko du dagozkion ohore guztiekin, eta Bidasoa konpainiak eramango du, berezko eskubidea duenez.
- Hatxeroen eskuadrako sekzio bat, atzetik danborrada eta Bidasoa konpainia dituela, Danborradak joko duen *Tteiro* doinupean, Irungo bandera jasotzera joango da Alardeko lerroetan sartua izan dadin. Irungo bandera jaso ondoren, batailoian sartuko da Musika Bandak interpretatuko duen San Martzialeko *Himnoaren* doinupean, eta bitartean Danborradak *Tteiro* interpretatzen jarraituko du. Irungo bandera desfileko bere tokian kokatu ondoren, Jeneralak aginduko du San Martzialeko *Himnoa* eten dadila. Era berean, Bidasoa konpainia bere tokian kokatu ondoren, Jeneralak aginduko du *Tteiro* eten dadila.
- Irungo bandera Alardean sartuta, tradiziozko salbak egingo dira.
- Jarraian Alardea hasiko da eta bertara bilduko da, bertaratzen bada, kabildo sekularra. Alardea Eliza eta Eskoleta karriketatik igaroko da eta Irungo zaindari den Junkaleko Andra Mariaren elizarantz abiatuko da, eta hemen tradiziozko salbak egingo dira.
- Elizako kabildoa, bertaratzen bada, eta San Martzialen ohorezko estandartea Alardean sartuta, prozesio zibiko-erlijiosoa San Martzial ermita historikora joango da Botoa betetzeko. Ondorengo ibilbidea jarraituko du: Eskoleta karrika eta Fermin Calbeton kalea, Jenaro Etxeandia plaza, Foruen karrika eta Nagusia, San Juan



Harria plaza, San Martzial, Sarjia eta Larretxiplak, Urdanibia plaza eta Santa Elena karrika.

- Alardeko indarrek Santa Elena karrikan lerroak hautsiko dituzte. Botoa betez, berriz ere San Martzial mendian lerrokatuko dira, non meza egingo den, Elizako Kabildoa bertaratzen bada, edo oroigarritzko ekitaldia.
- Zeremonia egiten den garaian aldea eta Irungo bandera zaintzea Hatxeroen eskuadraren ardura izango da.
- Infanteriako kideek, Bidasoako kapitainaren aginduetara, eta Artilleriako bateriak, tradiziozko salbak egingo dituzte.

28. artikulua

- Alardea berriz hasteko jarritako ordua baino orubete lehenago, Ordenantzazko deiaren ondoren, jaisten hasiko dira.

29. artikulua

- Arratsaldean, Buruzagien Juntak finkatutako orduan, indarrak Santa Elena karrikan eta inguruetan lerrokatuta, eta Jeneralak infanteriako kapitainei eta unitateko buruei dei egin ondoren, Alardea berriz hasiko da, ondorengo ibilbidea jarraituz: Urdanibia plaza, Kontrakalea, Zeharkarrika, Larretxiplak, Sarjia, San Martzial, Nagusia eta Foruen karrika, Jenaro Etxeandia plaza, Fermin Calbeton kalea, Eskoleta karrika eta Junkaleko plazatxoa, eta tradiziozko salbak egin ondoren, Elizako Kabildoa, bertaratu bada, parrokiara itzuliko da eta San Martzialen ohorezko estandartea erretiratuko da.
- Ondoren, Alardeak jarraituko du ondorengo ibilbidea egiten: Eskoleta karrika, Fermin Calbeton kalea, Jenaro Etxeandia plaza eta Colon ibilbidea, Gipuzkoa hiribidea, Artaleku kalea, Nagusia eta San Juan Harria plaza, non ordenantzazko ohoreak eskaini ondoren eta konpainietako banderatzok lagunduta, Irungo bandera entregatuko den.
- Irungo bandera entregatzean, Hatxeroen eskuadrako sekzio batek, Danborradak, Bidasoa konpainiak eta gainerako banderatzok lagunduta, Danborradak *Tteiro* interpretatuko du eta Musika Bandak San Martzialeko *Himnoa*. Irungo bandera entregatu ondoren, Jeneralak aginduko du San Martzialeko *Himnoa* eten dadila, eta Bidasoa konpainia bere tokian kokatzen denean, *Tteiro* doinua eten dadila aginduko du eta horrekin Alardea amaitutzat emango da. Jarraian, desfilea hasiko da eta konpainiak eta unitateak beren ohiko tokietara joango dira.



- Kabildo sekularra, bertarutzen bada, Irungo bandera entregatu ondoren erretiratu egingo da.

Uniformeak

30. artikulua

- Zorrotz bete beharreako izango da uniforme hauek eramatea:
- JENERALA:
 - Frak beltza, fajatxo gorria urrezko borlekin, aginte-makila, eskularru zuriak, bota beltzak ezproiekin eta adar-bikoa edo bi puntako kapela beltza.
- INFANTERIAKO KOMANDANTEA:
 - Txapel gorria, jaka beltza, alkandora zuria, zaldiz ibiltzeko galtza zuriak, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak ezproiekin, faja eta gorbata gorriak, kolore bereko zapia jakaren goiko poltsikoan daramala goizez eta lepoan jarrita arratsalde, eta sablea.
- LAGUNTZAILEAK:
 - Infanteriakoa: gerrera eta galtza gorriak hori kolore biziekin, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak ezproiekin, lokarria eta agindueramalea urre kolorekoak eta sablea.
 - Artilleriakoa: gerrera urdina gorri biziekin, galtza zuriak zerrenda gorriarekin, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak ezproiekin, gerriko gorria, lokarria urre kolorekoa eta sablea.
 - Estatu Nagusikoena: gerrera eta galtza urdinak berde biziekin eta eskumutur bakoitzean korapilo hungariarekin, fajatxo berdea urre koloreko borlekin, urre koloreko lokarria, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak ezproiekin eta sablea.
 - Zaldizkoen konpainiakoa: gerrera zuri-marfila urdin biziekin, galtza urdinak zerrenda zuriarekin, txapel gorria, eskularru zuriak, zaldiz ibiltzeko bota beltzak ezproiekin, lokarria eta gerrikoa urre kolorekoak eta sable okerra.
- KANTINERAK:
 - Txapel gorria, belusezko gerrera beltza urre koloreko botoi eta galoiekin, bonbatxoak eta gona motza plisatua, bi jantziak franela zurizkoak eta azkenekoa gerrerak daukan kolore bereko zerrenda zabalarekin, belus beltzeko



IRUNGO SAN MARTZIAL ALARDEAREN ORDENANTZA



mantal txiki bordatua, bandolera zuria bere upeltxoarekin, eskularru zuriak, lonazko bota altu zuriak eta abanikoa. Orrazkera mototsa izango da.

- Salbuespen gisa, Zaldizko eta Artilleriako kantinerek zeru koloreko gerruntze urdina eramango du lehenak eta pastel koloreko gerruntze urdina bigarrenak, gona zuria gerreraren kolore bereko zerrenda zabalarekin, zaldiz ibiltzeko bota beltzak eta usta,
- HATXEROAK:
 - Txapel gorria, alkandora zuria, jaka beltza, galtza zuriak eta polaina beltzak, espartin zuriak zinta beltzarekin, larruzko mantala eta, besoan, preferente mailako soldaduen galoiak, pikotxa eta pala gurutzatuta.
 - Kaboak zerra bat eramango du, eskuadrako bakarra, eta gainerakoek lubakitzaille kidegoak berezko dituen erremintak eramango dituzte.
 - Arratsaldez elkartzerakoan kaboak zapi gorria lepoan eramango du eta eskuadrak zapi zuria.
- INFANTERIA:
 - Txapel gorria, alkandora zuria, jaka beltza, galtza zuriak, galtzerdi zuriak, kolore bereko espartinak zinta beltzarekin, faja eta gorbata gorriak kolore bereko zapia jakaren goiko poltsikoan daramala goizez eta lepoan jarrita arratsaldez. Soldaduek eskopeta eramango dute, musika bandako kideek izan ezik.
 - Kapitainek, tenienteek eta alferezek eskularru zuriak eta sablea eramango dute.
 - Aginduak emateko turutariak infanteriako soldaduen uniforme bera eramango du eta eskopeta zintzilik.
- ARTILLERIA:
 - Txapel gorria, pañozko gerrera urdin pastel kolorekoa, urre koloreko botoiekin eta lepoan bi bonbita, zein armakoak diren adierazten dutenak, galtza zuriak alboetan zerrenda urdinak dituztela, polaina beltza, espartin zuriak zinta beltzarekin, gerriko zuria eta matxetea.
 - Ofizialek eskularru zuriak eta sablea eramango dituzte eta zaldiz doazenek zaldiz ibiltzeko bota beltzak.
- MUSIKA BANDA ETA DANBORRADA:
 - Txapel gorria, alkandora zuria, jaka beltza, galtzak eta galtzerdiak zuriak, espartinak kolore berekoak zinta beltzarekin, faja eta gorbata gorriak kolore



bereko zapia jakaren goiko poltsikoan daramala goizez, eta lepoan jarrita, arratsaldez.

- Danbor Nagusiak makil orlatua eramango du Danborrada zuzentzeko.
- ZALDIZKOEN ESKOLTA:
 - Gerrera marfil-zuri kolorekoa urdin biziekin, galtza urdinak bi zerrenda zuriekin, gerriko zuria, zaldiz ibiltzeko bota beltzak, txapel gorria, eskularru zuriak eta sable okerra.

Bereizgarriak

31. artikulua

- INFANTERIAKO KOMANDANTEA.
 - Eskumuturreko bereizgarria "panecillo" erako bi galoi izango dira, bat urrezkoa eta bestea zilarrezkoa, 18 eta 14 mm-koak hurrenez hurren.
- LAGUNTZAILEAK:
 - "panecillo" erako bi galoi, bat urrezkoa eta bestea zilarrezkoa, 15 eta 10 mm-koak hurrenez hurren.

INFANTERIA ETA ARTILLERIA:

- KAPITAINAK:
 - Eskumuturreko bereizgarria urrezko hiru galoi *soutache* izango da.
- TENIENTEAK:
 - Urrezko bi galoi *soutache* izango da.
- ALFEREZAK:
 - Urrezko galoi *soutache* bat izango da.
- SARJENTUAK:
 - Bi galoi *soutache* gorri izango da.
- KABOAK:
 - Urrezko galoi *soutache* bat izango da.

ZALDIZKOAK:

- KAPITAINA, TENIENTEA ETA ALFEREZA:



- Infanteria eta artilleriako berak izango dira.
- SARJENTUA:
 - Bi galoi *soutache* urdin izango da.
- KABOA:
 - Galoi *soutache* urdin bat izango da.

HATXEROAK:

- KABOA:
 - Infanteriako kaboen bereizgarri bera eramango du.

MUSIKA BANDA ETA DANBORRADA:

- BANDA KO ZUZENDARIA ETA DANBOR NAGUSIA:
 - Bereizgarri bezala eskumuturrean urre koloreko hiru botoi eramango dute.
 - Bandako zuzendariaren eta Danbor Nagusiaren laguntzaileek bereizgarri gisa urre koloreko bi botoi eramango dute eskumuturrean.

Armen mugimenduak

32. artikulua

- Indarrek martxari hasiera emango diote armak eskubiko sorbaldan dituztela, San Juan Harria plazan behar bezala antolatu arte.
- Jenerala sartzen denean Komandanteak "irmo!" aginduko du.
- Armen gainontzeko mugimenduak Jeneralaren aginduetara egingo dira.

Alardearen musika

33. artikulua

- San Martzial egunean, goizeko seietan puntuan, Musika Bandak Villarrobledoren Diana joko du San Juan Harria plazan. Diana amaitutakoan Danborradak toki berean bere *Diana* joko du eta, jarraian, biak Jeneralaren eta Alardeko Juntako presidentearen etxeetara eta ohiko tokietara joango dira eta beren dianak errepikatuko dituzte.
- Konpainiak elkartu behar duteneko tokira *San Martzial himnoaren* doinupean joango dira.



IRUNGO SAN MARTZIAL ALARDEAREN ORDENANTZA



- Alardean zehar, Danborradak jotzen dituen martxa berak joko dituzte konpainiek beren ibilbidean. Danborradak eta Musika Bandak Joló edo Rataplán jotzen duten tokietan, konpainiek San Martzialeko Himnoa joko dute.
- Alardeko indarren ibilbidea Urdanibia plazatik abiatuko da Danborradak joko duen *Arrankada* doinuan.
- Irungo bandera, Danborradak eta Musika Bandak joko duten *Tteiro* eta *San Martzialeko Himnoaren* doinupean, hurrenez hurren, bereganatuko dute.
- Junkaleko Andra Mariaren parrokiarantz abiatzen direnean, bandak eta Danborradak *Joló* interpretatuko dute kabildo sekularra, bertaraten bada, aipatu parrokiara iristen den arte.
- Elizatik hasi eta Fermin Calbeton kalera arte, Danborradak "*Subida a la iglesia*" doinua joko du eta hemendik aurrera Musika bandarekin batera *Joló* joko dute Urdanibia plazan amaitzen duten arte.
- Alardea arratsaldez Santa Elena karrikan berriz hasten denean, Danborradak *Arrankada* interpretatuko du eta Sarjia karrikara iristen direnean eten egingo da. Toki honetan, Musika Bandarekin batera *Rataplán* interpretatuz hasiko dira, kabildo sekularra eta elizako kabildoa, bertaratu badira, parrokiara iristen diren arte.
- Jarraian, eta Elizako plazatik Fermin Calbeton kalera arte, Danborradak "*Subida de la iglesia*" interpretatuko du eta, hemendik berriz ere, Alardeko indar guztiak San Juan Harria plazan elkartzen diren arte, ibilbide osoa Musika Bandak eta Danborradak interpretatuko duten *Rataplán* doinuan egingo da.
- *Descarga* martxa entzungo da Alardea Junkaleko plazatxoan eta San Juan Harria plazan elkartzen denetan ordenantzazko salbak egin ondoren.
- Irungo bandera bere tokira itzultzen denean, Danborradak *Tteiro* interpretatuko du eta Musika Bandak *San Martzialeko Himnoa*.
- Jeneralak desfilatzeke agindua ematen duenean, Musika Bandak eta Danborradak *Fagina* joko dute eta bitartean konpainiek beren jatorrizko punturainoko bidea egingo dute *San Martzialeko Himnoaren* doinuan.
- Goian deskribatutako musikak jotzeko infanteriako konpainietako bandentzat gomendatzen diren partiturak, X orrialdetik aurrera erantsita doaz.

Alardeko Junta



34. artikulua

- San Martzial Alardearen inguruko azterketarako eta aholkuak emateko organoa da eta bere zeregina da Alarde honen Ordenantzan adierazten denarekiko errespetua eta garapena zaintzea.
- Alardeko Juntaren eskumenak izango dira:
 - a) Ordenantzak egitea eta horiek berrikusi eta interpretatzea, gero Buruzagien Juntaren onespenera jarritz.
 - b) Dagokionari proposatu eta jakinarazi Ordenantza honetan jasotako alderdi haien guztiaren inguruan, gero Buruzagien Juntak erabakiak har ditzan.
 - c) Erregimen diziplinarioa behar bezala aplikatu eta betetzen dela zaintzea.
 - d) Ordenantza honetan zehatz-mehatz azalduta ageri ez diren alderdi haiek guztiak interpretatu eta argitzea, ondoren Buruzagien Juntari aurkeztuz.
 - e) Infanteriako konpainia guztien Arautegia eta Barne Erregimeneko Arauak onartzea, baita unitateetako Barne Erregimeneko Arautegikoak ere, gero Buruzagien Juntak berresteko ezarriko direnak.
 - f) Juntak berak proposatzea beharrezkotzat jotzen dituenak San Martzial Alardearen kontserbazioa bermatzeko.
 - g) Bere kideen artetik bi izendatzea kapitainen eta unitateko buruen hautaketa prozesuen funtzionamendu egokia izango dela zaintzeko.
 - h) San Martzial Alardearen inguruan ezagutza eta kultura garatzeko ekimenak proposatzea, eta horiek kudeatzea.

Alardeko Juntaren osaketa

35. artikulua

- Alardeko Junta ondorengo kideek osatuko dute:
 - Jenerala eta Komandantea, indarrean dagoen urtekoak.
 - Aurreko Jeneralak.
 - Hamar soldadu; horietatik zazpi infanteriakoak izango dira, eta hiru, buruzagien Juntak izendatutako unitateetakoak.
 - Kantinera bat, Alardean jada parte hartu izan duten guztien artean aukeratua, horretarako Alardeko Juntak eginiko deialdian.



- Buruzagien Juntako idazkaria, Alardeko Juntan idazkari funtzioak beteko dituen.
- Alardeko Juntak deitu ahal izango ditu nahi dituen pertsona guztiak aholkulari gisa, hitza edukita baina botorik gabe, aldi baterako eta helburu zehatz baten baitan.

Alardeko Juntaren Presidentea

- Alardeko Juntako kideen artean bat aukeratuko dute, Jenerala eta Komandantea izan ezik, presidente kargurako eta horrek aipatu Juntaren izenean jardungo du beharrezko unetan, eta ordezkariak izendatzeko ahalmena izango du. Kargu hori lau urteko eperako izango da, ezinbesteko arrazoiak tartean direnean edo Juntak berak kentzen dionean izan ezik, eta berriz hautatua izateko aukera egongo da.
- Presidenteak Alardeko Juntaren bilerak deituko ditu Alardeko Juntako idazkariaren bitartez.
- Presidentea Alardeko Juntaren bilera deitzera behartuta egongo da boto eskubidea duten bere kideetako gutxienez erdiak eskatzen badiu.
- Alardeko Juntak Jeneralari eskatu ahal izango dio Buruzagien Juntaren bilera deitu dezala azken horren eskumeneko gaiak aztertzeko.

36. artikulua

- Alardeko Juntako kideak (indarrean dagoen urteko Jenerala eta Komandantea izan ezik eta aurreko Jeneralak eta idazkaria izan ezik, azken hori hala izango delako Buruzagien Juntakoa den bitartean) lau urtez behin berrituko dira.
- Kide batzuen erreleboa egin behar bada, aukeratuak izan ziren modu berean egingo da eta inoiz ez zuzenean ordezkatuta eta/edo izendatuta.

Buruzagien Junta

37. artikulua

- Organo subiranoa da eta horren zeregin nagusia San Martzial Alardea antolatzea da eta, gainera, Alardearen beraren inguruko guztiaz eta/edo horri erreferentzia egin edo eragiten dionaz arduratu, zaindu eta erabakitzea.
- Hori dela eta, bere eskumenak ondorengoak izango dira:
 - a) San Martzial Alardea, Armen Ikuskatzea eta horren inguruko edozein ekintza (kantineren aurkezpena, ...) antolatu.



- b) Alardearen antolakuntzarako aurrekontuak osatu eta finantzatzeko moduak bilatu, eta horretarako egin daitekeen ekintza oro antolatu.
- c) Ordenantza, infanteriako konpainietako Arautegia eta Barne Erregimeneko Arauak eta unitateetako arautegiak behin betiko onartu.
- d) Jeneral kargua beteko duen pertsona izendatu.

Buruzagien Juntaren osaketa

- Buruzagien Junta ondorengoek osatuko dute:
 - Jenerala.
 - Infanteriako komandantea.
 - Kapitain guztiak eta unitateko buruak.
- Juntako presidentea Jenerala izango da, eta bera falta denean, Komandantea.
- Bere kideen artean bat aukeratuko da idazkari lanak betetzeko.
- Kide guztiek hitza eta botoa izango dute.
- Kapitainak eta unitateko buruak, aparteko izaerarekin, bere konpainia edo unitateko beste buruzagi batek ordezkatu ahal izango ditu Buruzagien Juntetan, hitza eta botoarekin, Jeneralaren aukeraketari dagokion guztian izan ezik.
- Jeneralaren laguntzaileak eta aginduak emateko turutaria Buruzagien Juntako bileretara joango dira hitzarekin baina botorik gabe.

Ordenantza, Arautegiak eta Arauak

38. artikulua

- Inongo Arautegi edo Barne Erregimeneko Arau ez da Alardearen Ordenantza honen aurka joango.
- Infanteriaren osaketa kontuan hartuta, horietako bakoitzak bere Barne Erregimeneko Arauak edukitzea onartzen da. Edozein kasutan, aipatu arau horiek ezingo dute Infanteriako Arautegian agintzen denaren aurkakoak izan.
- Ordenantza, Arautegiak eta/edo Barne Erregimeneko Arauak aldatzeko edozein proposamen Alardeko Juntari bidali beharko zaio aztertu dezan.

Diziplina-erregimena



39. artikulua

Helburua

- Ordenantza honetan jasotzen den diziplina-erregimenak ordena ezarri nahi du San Martzial Alardearen formazio eta parte hartzaile guztien artean, Alardeak hobeto funtzionatu dezan eta kontserbatua izan dadin; eta bertako parte hartzaileek eta publiko orokorrak Alardea osatzen duten ekintza guztiez gozatu dezaten, beti ere San Martzial Alardeak ordezkatzeko duena eta esan nahi duena errespetatuz, kontuan hartuta Irungo herriaren ondarea dela eta horri errespetua zor diogula.

Obligazioak

- a) Alardean edo berekin zerikusia duten ekintzetan parte hartze hutsak Ordenantza hau, Arautegiak eta Barne Erregimeneko Arauak alderdi guzti guztietan onartzea dakar.
 - b) Buruzagien lehentasunezko zeregina da zaintzea ez soilik Ordenantza honetan jasotzen dena betetzen dela, baizik eta orokorki beren ardurapean dauden zereginen artean behar besteko neurritasuna eta diziplina mantentzen dela.
- Faltak, horren inguruan indarrean dagoen legeriak jasotzen duenaren kalterik gabe, hiru motatakoak izan litezke eta ondoren zehazten den moduan erabaki eta zigortuak izango dira.

Faltak - definizioa

40. artikulua

- Faltak dira Ordenantza honek zigortutako ekintzak edo omisio maltzurak edo zuhurtziagabeak.
- Faltak hiru motatakoak izan litezke: arinak, larriak edo oso larriak.
- **Falta arina:**
 - a) Ordenarik gabe desfilatzea eta/edo gainerako parte-hartzaileei molestatuz, beti ere horrek ez badu Alardearen funtzionamendu eta/edo martxa normala eragozten.
 - b) Buruzagiak ez badira aurreikusitako deietara edo eskatzen zaien guztietan agertzen, beti ere horrek ez badu Alardearen funtzionamendu eta/edo martxa normala eragozten.



- c) Uniformetasun zorrotza ez betetzea.
- **Falta larria:**
 - a) Hiru urteren buruan hiru falta arin egitea.
 - b) Ordenarik gabe desfilatzea eta/edo gainerako parte-hartzaileei molestatuz, horrek Alardearen funtzionamendu eta/edo martxa normala eragozten duenean.
 - c) Uniformetasun eza edo uniformetasun okerra, horrek Alardea eragozten duenean eta/edo desprestigioa edo beste edozein kalte eragiten dionean.
 - d) Alardeko buruzagi desberdinei desobeditzea haiek beren kargua betetzen ari direnean.
 - e) Alardean parte hartzen duten Irungo banderari, banderaxoei, estandarteei eta gainerako sinboloei errespetu falta.
 - f) Konpainiak edo unitateak aurkezten direnean martxari hasiera emateko gainerakoak formatu ondoren, bai goizetik Urdanibia plazan eta inguruetan eta bai San Martzial ermitatik itzultzerakoan, arratsaldetik, Santa Elena karrikan eta inguruetan.
- **Falta oso larria:**
 - a) Bi urteren buruan bi falta larri egitea.
 - b) Larritzat jotzen diren faltak, horrek Alardearen eta/edo Armen Ikuskatzearen funtzionamendu normala geldiarazten duenean, pertsonengan edo gauzetan kalteak eragiten direnean.
 - c) Buruzagi bat, batailoiko beste edozein kide eta/edo publikoko norbait erasotzea.
 - d) Arma kargatuta desfilatzea.
 - e) Buruzagien Juntatik aurrez adierazi zaizkien toki haietatik kanpo tiroak egitea.
 - f) Buruzagien Juntak banatu ez duen munizioa erabiltzea.

Faltak preskribitzea

41. artikulua



- Faltak, zein mailatakoak egin diren kontuan hartu gabe, falta egin zela organo eskudun zigortzaileak jakin zuenetik sei hilabetera preskribituko dira, ez bada espediente zigortzailerik ireki.
- Edozein kasutan, faltak egin zirenetik hurrengo Alardearen hasieran preskribituko dira faltak, beti ere ez bada espediente zigortzailerik ireki haien aurka.

Prozedura zigortzailea

42. artikulua

- Falta arinak instruitu eta zigortzeko eskumena, Arautegiaren eta/edo Barne Erregimeneko Arauaren arabera, balizko falta egin duenaren konpainia edo unitate berarena izango da eta horren inguruko ebazpenaren berri Alardeko Juntari emango zaio berehala.
- Falta larriak eta oso larriak instruitu eta zigortzeko eskumena Alardeko Juntarena izango da.

43. artikulua

- Falta arinetan:
 - Falta egin duenaren **konpainiak edo unitateak** hasiko du bere kapitainaren edo unitateko buruaren bitartez.

44. artikulua

- Falta larri eta oso larrietan:
 - a) **HASIERA:** Prozedura zigortzailea Alardeko Juntak hasiko du, bai ofizioz, falta egin duenaren konpainiak edo unitateak eskatuta, edo bai Buruzagien Juntak aginduta.
 - b) **INSTRUKTOREAREN IZENDAPENA:** Alardeko Juntak izendatuko du bere kideen artean, Jenerala eta Komandantea izan ezik, prozedura bideratuko duen pertsona.
 - c) **JAKINARAZPENA:** Prozedura hasiko da espedientatuari jakinaraziz espedientea ireki dela, egozten zaizkion gertaerak adieraziz, eman dakioken kalifikazioa eta horren arabera jarri ahal izango zaizkion zigorrak aipatuz eta horretarako dauden probak ere aurkeztuko dira. Era berean, jakinarazpen horretan adieraziko zaio zein den instruktorea eta organo zigortzailea zeintzuk osatzen duten.



- d) **BERTARATZEA:** Espedientatuak 30 egun balioduneko epea izango du (ez dira egun baliodunak izango larunbat, igande edo Irungo jai-egunak) espedienteak ireki zaiola jakinarazten zaion egunaren hurrengotik zenbatuta, alegazioen idatzia, agiriak edo komenigarri ikusten dituen informazioak eman eta egokitzat jotzen dituen probak proposatu ditzan. Probak, alegazioak eta abar aurkezten ez badira, instruktoreak espedienteak Alardeko Juntari pasako dio.
- e) **PROBEN PRAKTIKA:** Proposatutako eta onartutako probak praktikatzeko, bai kargurako eta bai deskargurako, hamabost eguneko epea irekiko da proposatutako probak onartu edo baztertzen dituen ebazpenaren inguruko jakinarazpena espedientatuari egiten zaion egunaren hurrengotik zenbatuta. Proben praktika amaituta (egon bada), instruktoreak espedienteak Alardeko Juntari pasako dio ebazpenerako proposamenarekin batera.
- f) **INSTRUKZIOA:** Instrukzioak amaituta egon beharko du falta egin zeneko urteko abenduaren 31 baino lehen.
- g) **EBAZPENA:** Behin instrukzioa amaituta eta espedienteak jasota, Alardeko Juntak urtarrilaren 31 baino lehen erabaki beharko du eta erabaki horren berri emango dio espedientatuari diktamena egiten duenetik gehienez jota hamabost eguneko epean.

Neurri bereziak

45. artikulua

- Gorabeherak hala aholkatzen dutenean, ustezko falta-egilea Alardeko lerroetatik berehala kanporatu ahal izango da.
- Prozesu zigortzailea eten ahal izango da egindako faltak Ordenantza honetatik kanpoko beste prozesu bat irekitzea lekarkeen kasu haietan, prozesu administratiboa eta/edo penala, eta horrek eragozten badu ustezko falta-egilea/k libreki defendatzea. Prozedura zigortzailea eteteak faltak preskribitzeko epe guztiak geldiaraziko ditu eta Ordenantza honetan aipatzen diren epe haiek guztiak ere bai.

Zigorrak

46. artikulua



- 40. artikuluan tipifikatutako faltak, bere graduaren arabera, era honetan zigortuko dira:
 - Falta **arinak**
 - Ohartarazpena eginez, idatziz egin ahal izango dena.
 - Falta **larriak**
 - Buruzagien kasuan, kargutik kenduz eta Alardean desfilatzeko debekua jasoz, gehienez jota bi urterako.
 - Soldaduen kasuan, Alardean bost urtez jarraian desfilatzeko debekua jasoz, eta buruzagi izateko ezina.
 - Konpainia eta unitateen kasuan, ohartarazpena eginez, idatziz egin beharko dena.
 - Falta **oso larriak**
 - Buruzagien kasuan, kargutik kenduz eta Alardean desfilatzeko debekua jasoz bost urterako segidan, eta buruzagi izateko ezina.
 - Soldaduen kasuan, Alardean desfilatzeko debekua jasoz bost urterako segidan, eta buruzagi izateko ezina.
 - Konpainien kasuan, Alardean postuak galduz.

Errekurtsoak

47. artikulua

- Falta arinak:
 - Konpainiek eta/edo unitateek beren eskumenen arabera falta arinak egiteagatik ezarritako zigorretan, berrikusteko errekurtsoa jarri ahal izango du zigortuak, dagokion konpainia edo unitateko batzordean aurkeztutako idatzi baten bidez, gehienez jota 30 egun naturaleko epean, ezarritako zigorraren jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.
 - Dagokion konpainia edo unitateko batzordeak berrikusteko errekurtsoaren inguruan erabaki beharko du gehienez jota hamabost eguneko epean, aipatu errekurtsoa aurkeztu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.
 - Dagokion konpainia edo unitateko batzordearen berrikuste tramiteari buruz hartutako erabakiaren aurrean zigortuak apelazioz Alardeko Juntaren aurrean



errekurritu ahal izango du hamabost eguneko epean, dagokion konpainia edo unitateko batzordeak berrikuste tramitean diktatutako erabakiaren jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

- Alardeko Juntak apelazio errekurtsua erabaki behar du gehienez jota 30 eguneko epean, aipatu errekurtsua aurkeztu den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.
- **Falta larriak eta oso larriak**
 - Alardeko Juntak bere eskumenaren arabera falta larriak edo oso larriak egiteagatik ezarritako zigorretan, berrikusteko errekurtsua jarri ahal izango du zigortuak, Juntan aurkeztutako idatzi baten bidez, gehienez jota 30 egun naturaleko epean, ezarritako zigorraren jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.
 - Alardeko Juntak berrikusteko errekurtsuaren inguruan erabaki behar du gehienez jota hamabost eguneko epean, aipatu errekurtsua aurkeztu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.
 - Alardeko Juntak entzun diezaietela eskatu ahal izango dute zigortuek, Junta horrek ezarritako zigor bat berrikusteko errekurtsua jarriz defendatu ahal izateko. Entzuteko tramite hori eskatu ahal izango da, soilik, berrikusteko errekurtsua jartzeko aurkeztutako idatzian. Horretarako, Alardeko Juntak bilera berezi bat deituko du eta gai zerrendako puntu bakarra izango da zigortuari entzutea.
 - Bilera hori, aurreko atalean aurreikusitako hamabost eguneko epe barruan egin behar du.

Buruzagien aukeraketak

48. artikulua

Jenerala

- Ordenantza honetan jada adierazitako baldintzak betetzeaz gainera, Jeneral kargurako hautagai izateko ezinbesteko baldintza izango da horretarako osatuko den Buruzagien Juntako gutxienez kide batek hautagaitza aurkeztea.
- Jeneral gisa hautagarri izateko, ezingo du zigortua izan, ezta falta larri edo oso larriagatik prozesu zigortzaile batean sartuta egon ere.



- Jenerala hautatu ahal izateko, bakar bakarrik infanteriako kapitainekin eta unitateko kapitain eta buruzagiekin osatuta egongo da Buruzagien Junta. Kasu horretan Buruzagien Junta idazkariak presidituko du.
- Jeneralaren agintaldia amaitzen den kasuan, deialdia Buruzagien Juntako presidentziak (horretarako) egingo du, bozketa egingo den datarekiko gutxienez 30 eguneko aurrerapenarekin.
- Hauteskunde prozesua hauteskunde-mahai batek zuzenduko du eta honakoek osatuta egongo da: idazkaria, adinez nagusia den kapitaina edo unitateko burua eta adinez gazteena den kapitaina edo unitateko burua. Azken hauek (kapitainak edo unitateko buruak) Buruzagien Juntako gainerakoen artean izendatuak izango dira, idazkaria izan ezik.
- Hauteskunde-mahaiko kideetako norbait hautagaia izango balitz, honen ordeza ezaugarri berak betetzen dituen hurrengoa izendatuko da mahairako. Idazkaria bada, honen ordeza adinez nagusia den kapitainak edo unitateko buruak beteko du idazkari kargua eta horren ezaugarri berak betetzen dituen hurrengoa sartuko da mahaietan.
- Hauteskunde prozesua bideratzeko egutegia (ezinbesteko arrazoiak daudenean izan ezik) ondoren zehazten dena da:
 - Hauteskunde prozesua hasiko da gutxienez hamar eguneko epea emanaz hautagaitzak aurkezteko.
 - Hilaren 11tik 13ra hauteskunde-mahaiak aztertu eta behin-behingoan onartu/baztertuko ditu aurkeztutako hautagaitzak.
 - Hilaren 14tik 16ra hautagaitzak inpugnatzeko epea irekiko da.
 - Hilaren 17tik 18ra hauteskunde-mahaiak inpugnazioak aztertuko ditu, egongo balira, eta hautagaien behin-betiko zerrenda aurkeztuko du.
 - Hilaren 19tik aurrera Jenerala aukeratzeko eguna eta ordua markatuko da eta urriaren 1etik 31ra bitartean egin beharko da.
 - Botoa eman ahal izango dute soilik bozketa unean bertan dauden kapitainak eta unitateko buruak.
 - Bi hautagaitza baino gehiago egongo balitz, aurretik bozketak egingo dira bi hautagai bozkatuenak gera daitezten.



- Amaierako bi hautagaiak zehaztuta, Jenerala aukeratuko da prozesurako osatutako Buruzagien Juntako kideen gutxienez bi herenen botoez, beti ere bileran presente badaude, eta ez da delegazio edo posta bidezko botorik onartuko. Lehen bozketan aldeko bi herenak lortzen ez badira, bigarren bozketa bat egingo litzateke eta aukeratua izateko gehiengo absolutua aski izango litzateke. Bigarren buelta horretan ere gehiengo absoluturik lortuko ez balitz, horretarako eraturako Buruzagien Juntak erabakiko du egokiena uste duena.
- Jeneral figuraren errenuntzia edo ordezkatzeko kasuetan, horretarako eraturako Buruzagien Juntak Jenerala aukeratzeko deialdia egingo du datak ahalbidetzen dion azkartasunarekin.
- Jenerala kargutik kendu ahal izango da zentsura mozio baten bitartez, idatziz aurkeztu behar dena. Mozio horrek horretarako eraturako Buruzagien Juntako boto eskubidea duten bost kidek abalaturik egon behar du eta aurrera eramateko horretarako eraturako Buruzagien Juntako boto eskubidea duten kideen gehiengo absolutuak onartu behar du, helburu horrekin espresuki deitutako bileran.

Kapitainak eta unitateko buruak

- Kapitainak eta unitateko buruak aukeratzeko hauteskunderen kasuan, urria baino lehen egin beharko dira eta konpainien arautegietan eta barne arauetan jasotzen dena kontuan hartuz.
- Kapitain edo unitateko buru gisa hautagarri izateko, ezingo du zigortua izan, ezta falta larri edo oso larriagatik prozesu zigortzaile batean sartuta egon ere.
- Hauteskunde horietan zaindu egingo da Jenerala aukeratzeko egiten den prozesuaren berdina edo antzekoa izan dadila eta behar bezala kontu emango zaio Buruzagien Juntari. Azken honek bere idazkariaren bitartez Alardeko Juntari kontu emango dio aipatu hauteskunde prozesua egiteko markatu direnaldi eta daten inguruan. Alardeko Juntak, Ordenantza honen 34. artikuluan ezartzen den bezala, bertan egon ahal izango du eta hauteskunde prozesuan parte hartzen duten ekintza eta/edo baldintza orori buruzko dokumentazioa eskatu ahal izango du.

Azken xedapenak

- a) Kapitain eta/edo unitateko buru izan nahi dutenek, gutxienez azkeneko hamar urtetan kargua lortu nahi dueneko konpainia edo unitate berean desfilatzen ibiliak izan behar dute, ezinbesteko arrazoiak egon direnean izan ezik.



- b) Konpainia edo unitate bateko bandako inongo kidek, urte horretan txandatzea tokatzen zaionean, ezingo du beste konpainia bateko bandan desfilatu.
- c) Partaidetza mugatuko unitateren batean behin desfilatu izan duten soldadu haiek, aukeratu egin beharko dute edo unitatean jarraitu eta inongo konpainiako bandan ez desfilatu, edo unitatea utzi eta konpainiako bandan desfilatu ahal izatea, bertako barne araua kontuan hartuz.
- d) Kapitaina, tenientea, alfereza eta banderatxoa daraman kaboa dagokion konpainiako bandatik datozenean eta agintaldia amaitutakoan, konpainian sartuko dira berriz eskopeta bezala, bandako kide titular izaera galduz. Izendapenaren unean bandan sartzeko hautagai izan badira, beren postua galduko dute eta agintaldia amaitzen den unean azkeneko postura pasako dira.

Xedapen gehigarriak

- a) Ordenantza hau Buruzagien Juntak behin betiko onartzen duenean, San Marzial Alardearen antolakuntza eta/edo garapenari buruzko aipamenik egiten duen aurreko arau oro indargabetuta geratuko da.
 - b) Ordenantza honen aldaketa proposatzeko, horretarako bildutako Buruzagien Juntako boto eskubidea duten kideen gutxienez erdia gehi baten babesa beharko da; eta Buruzagien Juntako boto eskubidea duten kideen bi herenen aldeko botoa beharko da gutxienez Ordenantzan edozein aldaketa egitea onartzeko.
 - c) Ordenantza hau, Alardeko Juntak berrikusi ondoren, Buruzagien Juntak behin betiko onartu zuen 2016ko azaroaren 22an. Bilera horretan bertan erabaki zen 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartzea.
-



IRUNGO SAN MARTZIAL ALARDEAREN ORDENANTZA



ERANSKINA - San Martzial

Alardearen musiken partiturak

Diana de Villarrobledo

p *f* *p* *f*

7 *mp* 3 3 3 *cresc...* 3 3 3

13 *f* *f* *marcial* 1

20 *f* 2 1 2 *f*

26

32 *a Coda* \oplus *menos* 1 2 *p*

39 *p*

46 1 2 *espressivo* *mf*

52 *p*

59 *p*

D. C. hasta la \oplus
y salta a CODA

66 CODA

Joló

f

8 *f* *p* *f* *p*

14 *f* *p* *f* *p* *f* *f*

20 *f*

26

32 *f* *f*

39 *f*

46 *f*

54 *ff*

62 *mf* *cresc...* *f*

68 *f*

Detailed description: This is a musical score for a piece titled "Joló". It consists of ten staves of music, all in treble clef. The key signature is one flat (B-flat), and the time signature is 2/4. The score begins with a dynamic marking of *f* (forte). The first staff (measures 1-7) features a melodic line with eighth and sixteenth notes. The second staff (measures 8-13) includes first and second endings, with dynamics *f*, *p*, *f*, and *p*. The third staff (measures 14-19) continues with first and second endings, marked with *f*, *p*, *f*, *p*, *f*, and *f*. The fourth staff (measures 20-25) is marked *f*. The fifth staff (measures 26-31) features a complex rhythmic pattern with first and second endings. The sixth staff (measures 32-38) is marked *f*. The seventh staff (measures 39-45) includes triplets and is marked *f*. The eighth staff (measures 46-53) features triplets and is marked *f*. The ninth staff (measures 54-61) is marked *ff* (fortissimo). The tenth staff (measures 62-67) is marked *mf* (mezzo-forte) and includes a *cresc...* (crescendo) marking. The eleventh staff (measures 68-74) features triplets and is marked *f*.

Rataplán

Musical score for 'Rataplán' in 6/8 time, featuring a melody and accompaniment. The score includes dynamic markings such as *f*, *p*, and *cresc...*, as well as performance instructions like 'Caja y Redoblante' and 'FIN'. The piece concludes with a *D. C.* (Da Capo) instruction.

8 *f* *p cresc...*

14 *f* *p cresc...* *f*

20 *p cresc...* *f* **FIN** Caja y Redoblante

26

32 *p*

37 *f* *p* *cresc...* *f* **D. C.**

Descarga

Musical score for 'Descarga' in 2/4 time, featuring a melody and accompaniment. The score includes dynamic markings such as *f* and *p*, and performance instructions like *cresc...*.

6 *f* *p* *cresc...*

11 *f*

Fagina

§

Musical score for 'Fagina' in 2/4 time, key of B-flat major. The score consists of five staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two flats, and a 2/4 time signature. It starts with a forte (*f*) dynamic and a repeat sign. The second staff continues the melody with first and second endings, marked with a forte (*f*) dynamic. The third staff features a piano accompaniment of chords, marked with a mezzo-forte (*mf*) dynamic. The fourth staff continues the piano accompaniment. The fifth staff concludes the piece with first and second endings, marked with a forte (*f*) dynamic, and includes the instruction 'A la §'.

Himno de San Marcial

Musical score for 'Himno de San Marcial' in 3/8 time, key of B-flat major. The score consists of three staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two flats, and a 3/8 time signature. It starts with a piano (*p*) dynamic and a repeat sign, followed by a crescendo to mezzo-forte (*mf*) and another piano (*p*) dynamic. The second staff continues the melody with first and second endings, marked with piano (*p*) and forte (*f*) dynamics. The third staff features a piano accompaniment of chords, marked with piano (*p*) and forte (*f*) dynamics, and concludes with the instruction 'D. C.'.